

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (VI)

Karobixa



Atakia

Garibai auzoko Dolaretxeko (Dolatxe) karobixa zana. Arg.: (Roberto Altuna)

ROBERTO ALTUNA

Eta eurak, etxeak, egitten euen dana, bape auzolan barik. Karobixa izan ezian. Orduan bai, premiñazkua zan norbaiten laguntasuna: edozeiñek daki, lurzulo biribil harriz jantzixa izaten da karobixa, harri-labia. Burua estali barik eukitten dau, eta aurretik, behealdian, otia eta egurra sartzeko zulotxo bat, 'ataxia' esaten xakona. Horretarako egun argi aukeratueta, kargaiten daue barru dana kare-harriz, ekarten daue otia eta egurra, burdikadak eta burdikadak, sartzen daue atakatik, sua emuten xaue, eta han egoten dira baserritarak gau eta egun karobi aurrian, sugarretan, kemiñetan, gorri-gorri, izerdittan, txorixua egoten dan moduan, koipia darixola, betik otia sartu eta sartu, sua makaldu eztedin eta euren lan dana galdu eztaixen. Arretaz egin bihar dana da kare-erretia, lan gogorra da, baiña baserritar gehixenak topaiten daue bigungarri on bat, han nunbaiten gordeta eukitten dauen ardaua zahatuan. Zahatua eskuetan dakoilla ikusiko dittuzue, agua zabalik, gora begira sarritxo, euririk egingo ete dauen edo ez; itxuria danez, eurixa kaltegarri haundixa da karobirako. Askotan pentsau xat neri nekiak eta suak baiño zahatokuak bero gehixago emuten ez ete dosten. Karia ondo erreten bada, eztei haundixak egitten dittue, eta ezteixetan jan galanki, eran galankixago, eta gero mozk... Horra, horra, ba, esan, isilik euki bihar nebena.

Txomin Agirreren 'Garoa' nobelako zatixa, moldautakua.

Berbategixa:

károbi, -xa = calera, horno de cal

eztei, -xa = bataio, jaunartze, ezkontza...bat tarteko egitten zan jaixari esaten xakon. Hor izaten ziran otordua, lekaixuak... "Ezteixak aldekuen!". Trinidadiai be esaten xaten: "Ezteixak Araotzen!". Lanen bateri akaberia emundakuan be (erretillia, bidegintzaren bat, lantegiren bateri etsipena emundakuan...) ezteixa egitten zan (otordua, droga...).

- "Hor droga gogorra entzuten da".
- "Ezteixak: Realak irabazi dau eta!"

(*) Itten: arrastua, pistia

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (VII)

Ezkontza-tratua



1977ko Herri Egunian Makalena alkartiak antolatutako Herri Ezkontzaia. Eguerdixan hasitta pasakallian ibilli ondoren herriko plazan akabo euen. Burdixaren aurretik, Juan Luis Ruiz; eta atzetik, Jabier Altzelai 'Sagasta'. (Argk.: Iñazio Irizar)

 ROBERTO ALTUNA

Jaiegun baten Zabaletako etxeoandria Ana Josepa eta Azkarragako Mari Batista jatzetxian bat egindda, hola egin euen berba andra bixak:

- **Ana Josepa:** Zure alabiarekin etorri naiz bidian ... Ondo neska ederra dago bera.
- **Mari Batista:** Gure Mikalla? Bai, horixe! Haren sasoian gu be bagiñan zerbait baiña ...
- **AJ:** Zenbat urte dako?
- **MB:** Datorren ilbaltzian hogeita hiru.
- **AJ:** Ona dírudí.
- **MB:** Oso da ona, etxeoia eta maratza. Ez neuria dalako, baiña eztago bera moduko beste bat Uribarrin.
- **AJ:** Zer ezkon-sari emungo zeunskio?
- **MB:** Ja jai! Horixe da ittauna politta, Ana Josepa.
- **AJ:** Ia ba, neuk be ezkongaxak dakot eta...
- **MB:** Bai, bai, guraso garen aldetik gure umien onari begiratu bihar xaugu eta ... Baiña gurian eztago zuenian beste diru. Mutil on baten biharra bai: aurtén be leher egin dogu garixa jotén eta iñaurkiñak ekarten. Bai ba, zahartu egin gara-eta. Gure Antonek be, honezkero, hirurogeita bosten bat urte izango dittu, senar-emazte eta alabatxo bi bakarrik gagoz, eta lanak dira hemen.

- **AJ:** Orduan elitzake gaizki etorriko zuentzako gure Iñaxio Mari.
- **MB:** Ez horixe, ez, Ana Josepa, eta bixok konponduko bagiña...
- **AJ:** Konpondu gatezan! Tira, zenbat emungo xatzue zuen alabiari?
- **MB:** Baiña gure etxerako.
- **AJ:** Bai ba, zuenerako. Zenbat?
- **MB:** Eztakit ba nik, ba. Bostehun dukat-edo.
- **AJ:** Zer dioxu, emakumia. Bostehun dukat Azkarragako alaba zaharrenari? Ikatzagakuak be badako horrenbeste, maizterrak izanda!
- **MB:** Ia ba, bestiak be, ezkonketan danian, zerbait izan biharko dau-eta. Zuek zenbat emungo xatzue mutillari?
- **AJ:** Guk zortzirehun dukat eta bi etxebizitza.
- **MB:** Ezkabiltz ondo, Ana Josepa. Zabaletako mutillak gurako littuke, gutxienaz, milla dukat eta berak ikazkintzaian irabazittakuak, bi etxebizitza, bi behi, hogei bat ardi, burdi bat...
- **AJ:** Ezin konpondu geike, Mari Batista.
- **MB:** Eztozu gura?
- **AJ:** Gura izatiarekin zer dakogu? Milla dukat eta eztakit zenbat ondasun gaiñera emun bihar guk, eta zuek bostehuntxo? Izango dau Iñaxio Mari milla dukatekua, berak zortzirehun eruanda be...
- **MB:** Ezta ba zuendako gauza haundixa milla dukat... Hara, zuek milla eta guk zazpirehun. Gero be zuen mutillori Azkarragara badator, etxian geratuko dira gure puskak. Eztago gehixago zer esanik.
- **AJ:** Zer esanik ez, orain berriz? Bai, Mari Batista, bai. Hau ezta hasieria besterik. Eskribauakgure papelak egin orduko zer esan haundixak emungo dosku gaur hasi dogun autuak. Gaiñera gure Joanesek ondo jakin, ondo ikusi eta ondo neurtu gura izaten dittu seme-alaben gorabeherako gauzak. Ni naiz Zabaletako etxeoandria, baiña nere senarra betik etxeo jaun, eta berari dagokixo Zabaletako gauza danak erabagittia.
- **MB:** Ba, Joanesek, zentzunezko gizona da eta milla dukat emungo xau semiari.
- **AJ:** Berriz be? Ondo goguan hartu dozu zeure eskabidia; baiña alperrik zabiltz neria ahazketan baxatzu!
- **MB:** Guk ahal dogun adiña, ahal dogun dana emungo xaugu, horra.
- **AJ:** Eztago gaizki esana. Zer meza entzungo dozu datorren domekan?
- **MB:** Zortziretakua nik.
- **AJ:** Hemen izango naiz, ba, ni be, Jaungoikuak gura badau, eta agur. Domeka arte!
- **MB:** Agur

Andratxo bixak pentsamentu batekin alde egin euen: egun hartan hasi euen gaixari akabera on bat zela emungo otsain.

Txomin Agirreren 'Garoa' nobelako zatixa, moldautakua.

BERBATEGIXA:

Jaztetxe, -ia: Baserriko jentia erropak aldaketako kalia izaten euen etxia.

Maratz, -a: Fiña, langillia.

Iñaurkin, -ña: Ganaduen azpik egitteko ebalten dan gauzia. (orbela, iria, bedar igarra...)

Autu, -a: Gaixa, asuntua.

ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

>> LITERATURA TXATALAK (VIII)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (I)

✍ ROBERTO ALTUNA

BIZITZAKO GORABEHERAK

Graziano Anduaga jauna 1877xan jaixo zan, abenduaren 18xan, Arantzazu auzoko Gesaltza baserrixan. Etxeko semerik zaharrena zanez, bera geldittu zan baserrixan. Ume denporan Uribarri auzoko eskolan ikasi eben irakurten, eskribitten eta lau erreglak egitten. Eta eztago esan biharrik, Kristau Dotriña ikasi ebela be bai. Galarraga, maisu famaia, izan zan eskolako gaixak erakutsi otsana.

1905ian ezkondu zan Estefania Arregirekin. Hiru seme-alaba izan zittuain. Nekazaritza eta baserri-lana izan zan betik Grazianoren ogibidia. Berrogeita hiru urtian ibilli zan goizero-goizero Arantzazuko fraidien Kolejixoko mutikuendako esnia eruaten armozurako, urte askuan zaldixa, eta, azkenetan, astua lagun ebela. Eguraldi ona zein txarra egin, bost kilometroko fan-etorrixa egin bihar izaten eben horretarako, bere etxetik komentura eta buelta. Auzoko alkate be luzaruan izan zan.

BERTSOLARIXA

Gazte-gaztetatik agertu eben Grazianok bertsotarako gogua eta trebetasuna. 1902 aldera etara zittuan bere lehenengo bertsuak, Oñatiko inprenta batian inprimauak. Inprentero harek Raldua eukan izena. Graziano bera eta Arrikruzko beste lagun bat ibilli ziran Oñatin kalez kale, bata bertsuak kantaitten eta bestia bertso-papelak saltzen. Hori izan zan gure bertsolarixaren estreñaldixa. Bertso hareingatik bekozko batzuk ikusi bihar izan zittuan, baiña horregatik etzan kikilddu. Alrebes, geruago eta beruago sartu zan bertso-bidian.

Bere bizitza luzian zihar egin zittuan bertso guztiak kontaitterik eztago. Batzuk bertso-papeletan inprentauak agertu ziran, beste mordo bat Arantzazuko errebistan; Goiz-Argi-n be bai beste batzuk; Euskaltzaindiko agerkarixan be badago bat (Ikusi "Euskera" 1956). Beste asko etziran sekula argittaratu. Bat-bateko bertsuak egitten be baekixen, jakiña, baiña berak gurago eben bere bertso-lana soseguz eta politto egin.

Baserri kontuak eukan betik goguan. Umetan ikasittako eskolia be ez eben alperrik euki. Betik izan eben irakurteko zaletasuna eta gogua. Eskribiu, berriz, letra apain eta garbi askuarekin egin ohi eben. Ittoian edo soruan edo ohian, horretarako eria hartzen ebenian, asmautako bertsuak zintzo-zintzo jasoko zittuan gero papelera.

LIBURUAK

Aitta Luis Villasantek '**Aitonaren Uzta**' izeneko liburua argittaratu eben 1961ian Itxaropena argitaletxiarekin, Anduagaren beraren ahotik hainbat ipuin eta gertaera interesgarri jasota. Ondoren, berriz be, aitta Villasantek batutako bertsuakin Aitta Antonio Zavalak beste bi liburuki argittaratu zittuan Auspoa bilduman, '**Egunsentiko txoria eta beste bertso asko**', 1963an, eta '**Bertso-bilduma**' (1965). Azkenik, Ander Lizarralde oñatiarrak '**Graziano, eta beste...**' liburua argittaratu eben 2021ian.



Gesaltzako aittona, aitta Pedro Anasagasti *Arantzazu* errebistiaren zuzendarixarekin. Hau izan zan gure bertsolarixaren azkenengo erretratua, 1963ko urriaren 12xan Arantzazun etaratakua

Itturrixa: Aitta Villasanteren 'Gesaltzako aitonari azken agurra' artikulua. Arantzazu errebistia, 1965eko apirilla, 426. zenb. (moldautakua)

>> LITERATURA TXATALAK (IX)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (II)

Kontakizunak (I)

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñuak: Jabier Erostarbe

Gurasuakin zu nola, zure umiak zurekin hala

Gizon bat bazixoian aitta bizkarrian hartuta ospitalera eruatera. Eta kantzau zanian itzi eben petril baten gainian. Aittak orduan esan otsan semiari: –Bai, seme, neuk be nere aitta ospitalera eruan nebenian, hementxe deskantzau nintzuan. Eta hurrengo hire txandia dok. Orduan seme hori konturatu zan eta esan eben bere artian: –Gaizki ñabik, eruan daian* aitta atzera etxera eta bizi dan arte ondo zainttu. Bestela neuk be ospitalera bihar dot eta. Eta handik aurrera aitta bera baiño hobeto zainttu eben.

(*) Eruan daian = eruan degidan = batuan, eroan dezadan



Zein gauza ona dan bata bestiagaz!

Nere amandriak esaten eben bizi zirala senar-emazte batzuk kriadiarekin. Eta eraten euela bazkarixan kurkubitta* bat ardau. Eta pentsau euela ardaurik ez eratia, karu zala eta. Hasi ziran, ba, bazkaritten, eta gizonak, egarritu zanian, esan eben: –Zein gauza ona dan bata bestiagaz! Orduan andriak erantzun eben: –Badoiala neskia kalabaziagaz! Neskiak, salto batian fanda, ekarri eben ardaua. Eta gero esan eben: –Hoba dogu lehengo moduan jarraiketia, egarrixak bizi barik!

(*) Kurkubitta = kalabaza txiki bat



Iñoren pekatuak ez konfesau

Andra bat fan zan konfesaittera, eta mandamentu danetan berak bape pekaturik ez eukala esan otsan abariari, baiña beste etxeko andriak pekatu asko eta haundixak egitten zittuela ikusten ebela. Akaberan abariak emun otsan penitentzia aldeko andriaren pekuakatik: mezak etara eta entzun egixela* zortzi egunian. Andria larritu zan eta erantzun otsan: –Baiña haren pekatuak nik pagau bihar al dittut? –Bai, zuk konfesau dittuzu eta penitentzia zuk zor dozu. Orain bestia libre dago. Eta berriz etzan fan, ez, iñoren pekatuak konfesaittera.

(*) Entzun egixela = batuan, entzun zezala/zitzala

- Kontakizunak moldauta dagoz Oñatiko euskerara.
- Itturrixa: Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga. Aitonaren uzta' liburua.
- Oharra: Kontakizun gehixago irakurteko jo Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga Aitonaren uzta' edo Ander Lizarralderen 'Graziano, eta beste...' liburuetara.



>> LITERATURA TXATALAK (X)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (III)**Kontakizunak (II)**

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñuak: Jabier Erostarbe

Birtute teologalak

Pernando Amezketarra fan zan txartela hartzera Garizuma garaixan. Abariak ittendu* otsan: —Dotriñante azkarra izango zara, duda barik! Pernandok erantzun: —Jauna, ondo ikasittakua ezta ahazketan. —Ia, ba, esan egizu, birtute teologalak. —Teologalak? Aurrena fedia eta bestia esperantza. Hirugarrenak badako milloï bat mudantza. Hil zan karidadia, bizi da bengantza.

(*) Ittendu = preguntau = galdetu

**Gure umia bizi izan balitza**

Araba aldian, senar-emazte batzuk bakarrik bizi ziran euren ume txikixarekin. Egun danerako sorora lanera fan bihar, eta soruak urrin. Orduan, umia eurakin batera hartu, otzaratxo batian sartu, eta eruan euen soro bazterrera. Illunkaran andria goizago etorri zan etxera, umia gizonak ekarriko eben ustian. Berandutxuago etorri zan gizona, umia andriak ekarri eben ustez. Eta gizona sukaldian sartu zanian: —Umia eztakatu? esan otsan andriak. Nik uste neben zeuk ekarriko zebela. Eta gizonak, orduan: —Ba, orain fan egin bihar dogu ekartera. Andriak, berriz: —Ez hadi fan orain, bixar goizian be han egongo dok. Hurrengo egunian fan ziran, eta umia hildda. Aittak negar egitten eben, eta amak, orduan: —Gure umia bizi izan balitza, ze gogorra izango zan! (Hau gure amandriak kontaitten eben).

**Katuari koskabillua jarri**

Arratoi gazte talde batek behin batian egin euen ikaragarritzko jaixa. Jan, eran eta jolas egin. Eta erabagi euen: —Lehengo zaharrok leluak izan dittuk! Gu hemen betik katuen billurrez. Etxagok hola ze bizi! Katuari jarri bihar txaugu koskabillua*, eta soiñua entzun arte patxaran egongo gaittuk.

Hartan egozela etorri xaten gazte askoren amandria. Eta barre egiñaz esan otsain hari: —Guk egin dogu asmaziño izugarrixa! Pentsau dogu katuari jartia koskabillua*. Amandriak erantzun osten: —A gaztedi lotsagarrixa! Guk antxiña asmau giñuan jartia koskabillua. Zuek asmau al dozue nun dan zeinek ezarrixa?

Orduan lotsatu ziran arratoi gaztiak eta ezagutu euen gaztearua ze zorua dan!

(*) Koskabillua = zintzarria = cascabel



- Kontakizunak moldauta dagoz Oñatiko euskerara.
- Itturrixa: Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga. Aitonaren uzta' liburua.
- Oharra: Kontakizun gehixago irakurteko jo Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga Aitonaren uzta' edo Ander Lizarralderen 'Graziano, eta beste...' liburuetara.

>> LITERATURA TXATALAK (XI)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (eta IV)

Bertsuak

Testua: Roberto Altuna

ERLEAK



Erlaak lanian abauan. *argk.* Sociedad Cordobesa de Historia Natural.
abau, -a = abaraska = *panal*

Hona hemen Arantzazuko errebistan agertu ziran Grazianoren bertsuak, erlaai eskiñitakuak (Ikusi "Arantzazu" XLII (1962), 155. zenb.). Zortziko txikiko hamar bertso dira, eta euroi bere airia emuteko beste bertso ezagun honein doiñuakin kantau leike: *Iturengo arotza, Markesaren alaba* edota *Nere sentimentua*.

Grazianok oso begiko dittu erlaak. Zintzuak diralako, langilliak, eta janaririk gozuen a egitten dakixeillako. Eta, gainera, alper danak hiltten dittuelako. Oin biko alperrakin be hala egingo balitza!

1/ Izaki danetatik
erlea da zintzoena,
loratatik jangaia
bildutzen duana:
ezti gozo, janari
danetan onena,
gizon listuak ezin
asmatu dutena.

2/ Erleak ere danak
ez dira zintzuak,
batzuek jaiotzen dira
alper ta anbuak (1),
haiek samur jateko
bestek egindakuak;
mundu guztian dira
batzuek horrelakuak.

(1) *Anbúak* = erla alperren izena (zánganos).

3/ Langileak goizean
egunen begira
loratuak biltzera
juteko mendira,
egun dana laisterka
buelta eta jira:
anbuak ordu hartan
lo egoten dira.

5/ Erle bihargileak
ez dabiltz eroso,
loratik jangaia
biltzen da nekoso;
izan behar ginduzke
maite-maite oso,
ematen dutelako
zenbait ezti gozo.

7/ Erregina bat dute
danairi agintzeko,
langileak bai zintzo
obedeitzeko;
neguan garbi-garbi
lasai bizitzeko,
berak agintzen die
anbuak hiltzeko.

9/ Anbuak egon arren
oso indartuta,
nahi duten dana janda,
gutxi nekatuta,
bik ezin dutenari
hiru-lauk helduta,
han botatzen dituzte
bizia kenduta.

4/ Langileak prisaka
gora eta behera
bildu ahal duten dana
ekartzen etxera,
arratsaldean ere
laisterka atzera;
anbuak orduantxe
pasiatutzero.

6/ Beste lan bat daukate
uda atzenean
lora guztiak zimel
jartzen diranean:
erreginaren aginduz,
haren esanean,
orduan hasten dira
hilkintza lanean.

8/ Berak hautatzen ditu
behar dituanak,
haiekin egiteko
aurrerako lanak;
zintzo betetzen dira
beraren esanak;
esaten die hiltzeko
gainerako danak.

10/ Arras hiltzen dituzte
anbo eta nagi:
begiratu erleak
duten legeari;
negurako etxea
uzten dute garbi:
hau ongi letorkio
mundu guztiari.

(Oharra: Euskera batuaren grafiaz idatzita)

Iturririx: Aitta Villasantek batutako eta Antonio Zavalak argitaratutako 'Bertso bilduma' liburua, Auspoa Liburutegia, 1965.

>> LITERATURA TXATALAK (XII)

Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818)

Bizitza eta obria (I)

Testua: Roberto Altuna



2018xan Zeka Oñati-Filatelia eta Numismatika Elkarteak ateratako seillua, Manuel Umerez abade eta idazle oñatiarra hil zaneke ehungarren urteurrena gogoraketako. Egillia: Jabier Erostarbe.

BIZITZAKO GORABEHERAK

- Manuel Umerez Agirre 1757ko agorraren (irailla) 11n jaixo zan, Oñatiko Goribar auzoko Goribargoitti baserrixan.
- Geruago, Agirre abizenaren ordezt, **Goribigargoitia** ebali eben bigarren deituratzat.
- *Erretore baten...* liburuan Umerezek kontaitten dosku gaztetan Oñatin ikasi ebela "nire gazte demporan Oñatin Estudioetan nebillela...", baiña zihaztu barik zein ikastetxetan ikasi eben. Hortik aurrera seguru dakigu 1776xan Granadara fan zala eta bertako unibersidadian bost urte pasau zittuela Zuzenbide Zibillaren eta Kanonikuaren Batxillergo Graduak ikasten, eta titulu horreik eskuratuta 1781an Oñatira itzuli zala.
- 1783an Oñatiko **San Migel parrokixako abade benefiziodun** moduan agerketan da. Eta bertan abade izan zan hiru hamarkada eta erdittan kargu asko izan baeben be, **kabildoko idazkari-kargua**, beste batzuen artian, etzan parrokua izatera ailegau.
- Hirurogei urte zittuela **Oñatin hil zan 1818ko otsailaren 25ian**, eta orduko Goribar auzoko Santa Kataliñako kanposantu barrixan enterrau euen.

TESTUINGURU HISTORIKUA

- **Garai gogorak** bizittia tokau xakon Manuel Umerezari: **Frantziako Iraultza** (1789tik aurrera); Frantzia iraultzaillia eta Espaiñiako eta Portugalgo erreinuen arteko **Konbentzio-gerra** (1793-1795); edota **Napoleonen Espaiñiako inbasiñua** (1808-1814).
- Frantzia aldetik etozen **idea eta eragin barri hareik astinddu haundixa** emun otsain orduko euskal gizartiar.



1789ko garagarriaren 14an, Parisko 'Bastida hartzea', Frantziako Iraultzaren hasieratzat hartzen dana.

Jean- Pierre Houel (1735-1813).

- Ondorixoz, ordura arteko egoeria aldatu etzedin, herri- nahiz **eliza-aginttari gehixenak erabagixak hartzeko premiña larrixa ikusi euen.**
- Elizgizonak, esaterako, **kontraerasuari ekin** otsain, batez be, **sermoi eta idazkixak egiñaz**, bai erderaz eta baitta euskeraz be.
- Iragako hiru hamarkaden aldian, XIX. mendiaren hasieran asko ugaltu ziran euskeraz idatzittako liburuak.
- Momentu hartan, **Bizkaixan nahiz Gipuzkuan, hainbat liburu moldau ziran geure hizkuntzan**, danak berihela kaleratu ezipaziran be. Eta gaur egunian orainddiok be horreittako batzuren batzuek argittaratu barik jarraiketan daue.
- J. A. Mogel, P. A. Añibarro, B. Mogel, J. B. Agirre, J. I. Gerriko, J. F. Amundarain, F. A. Otaegi, B. Madariaga, P. P. Astarloa eta Miguel Mariano Plaza oñatiarrak, beste batzuen artian, **berrekin otsain euskeraz idaztiari.**



1808ko mariatzaren 2xa Madrillen. Francisco de Goya (1814).

Datu guztien arabera, elizgizon euskaltzale gehixenak, dotriña-lanak eta filologia-lanak euskeraz lantzen zittuaiñak, alkar ezaguketan euen eta harreman estua eukain euren artian. Umerezek, Oñatiko parrokiako abadia izanda, bertako Unibersidadian ikasten euen euskaltzaliakin tratua izango ebela pentsau leike, horrein artian Juan Jose Mogelek. Baitta Zarauzko misiolariakin be (Palacios famaia oñatiarra zan, gaiñera) eta gauza bera esan leike Lizarragaren gaiñian be: Oñatin, Elkanon nahiz Markiñan behin baiño gehixagotan misiñuak emundakua zan da. Juan Antonio Mogelek be, ikusi dogun moduan, oso harreman estua eukan misiolariakin, Añibarroekin eta Palaciosekin gehixen bat.

- Testuinguru horretan ifiñi bihar dira '<http://www.oñati.eus>' > Oñatiko Udala > Udala > Argitalpenak > Euskara > Klasikoen obrak' **Manuel Umerez Goribargoitiaren euskerazko lanak** be, XIX. mendeko lehen hamarkadan egin ziranak.

Oharra: Interneterako konexiño ona edo banda zabala izan ezian, lanok dakoin pisu haundixa dala-eta, ezin dira ikusi.

Itturixa: J. Elortzaren zenbait artikulua eta B. Altunaren 'Euskaldun fededun' liburua, Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

>> LITERATURA TXATALAK (XIII)


Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818). Bizitza eta obra (II)

Testua: Roberto Altuna

MANUEL UMEREZEN ESKUIZKRIBUAK


Manuel Umerezek bi liburu mardul idatzi zittuen Oñatiko euskeran, 1805ian bata eta gerotxuago bestia, 'Oñatiko eskuizkribuak' edo 'Arrazola etxeakoak' izenarekin ezagutu izan diranak. Lehenenguak 440 orrialde dako eta bigarrenak 478. Hona hemen euren izenburuak hurrenez hurren:

1.- *Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.*



Oñatiko San Migel parrokiako abade benefiziudu horren testuan, gaur egunian orainddiok argitaratu barikuan, osaba abadiak berba egitten xao illobiari era guztietako aholkuak eskiñiaz, eta Jaungoikuarekin, bere buruarekin eta lagun hurkuarekin dittuen eginbiharrak gogoratuaz. Garai horretan bizitten dagozen fede galtzeiaren arriskua azpimarraketan dau behin eta berriz. Gaiñera, animiaren hiru etsai amorratuetatik –Diabrua, Mundua eta Haragixa– zela librau erakusten xao illobiari. Eta horrez gain, nekazari lanaz berba egitten xao, egon leiken lanbiderik onena dala esanaz.

2. - Bestiaren izenburua hauxe da: *Errectore Jaun baten instruccinuac ezcondurik vizi dan bere Adisquide Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.*



Aittatutako moduan, lan bixak 450en bat orrialde ingurukuak dira, egille berarenak eta eduki eta forma aldetik antz haundikuak. Testuaren interes filologikua garbixa bada be (Oñatiko euskaria lantzen dauen lehenengo idazlia dalako), are interesgarrixagua da bere edukixa, garaiko erreferentziaz jositta egotiaz aparte, erakusten dauen pentsakeriagatik, batez be.

Bai Umerezek bai Juan Jose Moglek didaktismo osoz jardun euen, garai neoklasikuaren ezaugarri nabarmena gordeaz, nun "aittak semiari (edo osabak illobiari, gure kasuan) erakusten xao" formula ebalten dauen horretarako. Edozein modutan, animak salbaittaren asmo nagusipeian, baserrittarraren lanaren eta bizimoduaren gorazarre bizixa egitten daue, argumentu zahar eta barrixak modu sistematikuan ebalixaz. Era berian, baserrittar/kaletar kontrastia ezin argixago ageri da Mogeldarrengan eta Umerezengan, eta ezin garbixagua da, baitta be, pekatuan jausteko arriskuaren aurrian moltzo bixen artian dagueen aldia, arrisku gehixen betik kaletarrak izaten dauela: "kaleetako bizimodu ta arrisku edo labanarri gustijak azaldeetan asi ezkeru, liburu andi asko baltzitu biarco litzaatez, txikin onen lekuban" dixo J.J. Moglek, *Escolia* liburuaren hitzaurrian.

Ikusten danez, bere sasueko beste euskal idazle gehixenak letxe, gaur eguneko pentsaitteko moduarekin konparauta, bestelako edo 'antigualeko ideak' defenditten zittuen Umerezek, gure artian *euskaldun fededun* esaeriagaz entendi izan diranak. Haren berbetan baserrittarrari "bere Animiaren nekazaria" izaten erakusten xau idazlanok, asmo nagusi hori buruan ebillela eskribu zittuen-eta bi lan horreik.

Dana dala, dotriña-zatixen artian noizian behin tartekaitten dira sasue hartako ohittura eta pentsamoldien argibide kuriosuak eta interesgarrixak, historia eta etnografiaren alorrian kontuan izateko moduko ekarpentxuak, duda barik. Adibidez, zelakuak ziran orduko jantzixak, janarixak, txokolatiaren inportantzia, Gaiztazuloko diabruen kontuak, egoera politikuaren gaiñeko komentarixuak, eta abar. Baiña M. Umerezen idazlanak badakoi beste balixo erantsi bat: ordura arte ixixa ebal bariko euskeriaren aldaera batian idatzixak izatia, Oñatiko euskeraz, alegia. Hori bai, idazkera dotore eta jaso samarrian. Halaxe diosku Jerardo Elortzak "Harrigarria da, benetan, ia landu gabeko euskararen herri-mota batean izkiriatzeak dakartzan zailtasunak gainditzeko Umerezek erakusten duen trebezia aparta. Maila apalagoan baldin bada ere, Joanes Leizarragaren ahalegin eskerga gogorazten digu". Hortaz, euskal filologiaren esparruan be dokumentu garrantzitsuak dira Goribargoittiko semiak moldautako eskuizkribu honeik.

Ikusi degigun, bada, bere bi liburuetako pasarte bana, esandako guztiaren erakusgarri:

***"Es deutsut esan, nire illoba, nekazaritzaiaren honra geiagoko oneik, beren aiziagaz arrotu zaitian, baizikan emun degiozun zeure nekazaritzaiari merezi daben estimazinoa eta jarraitu ez degiezun buru bagako nekazari nagi batzubei, zeñak honra geiago eukiko dauben pretestuagaz iges egiten deutsai beren ofizioari"* (Osaba baten..., 232-233).**

***"Itzain batek bere idiakaz kargaren bat burdian nunbaitera eruan gura dabenian, lenengo gertaketan dau burzilla, ondoren eraazten deutsa bere punta bietan txirrikak, gañian ifinten deutsa burkama zabala, ezarten deutsa deritzon kargia, idiak uztarrian lotzen ditu, eta onela kargia eruan eraiten deuste, bera idi aurreko dala. Orobat Jaungoikuak gugaz egiten dau, salbazinoko bidetik eruan biar dogun kargia eruan eraiteko"* (Errektore baten..., 54).**



Iturrixa: Jerardo Elortzaren zenbait artikulu eta Belen Altunaren 'Euskaldun fededun' liburu, Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

>> LITERATURA TXATALAK (XIV)

Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818). Bizitza eta obria (III)

Testua: Roberto Altuna

Lanon ibillerak: Goribargoittitik Arrazola Azpikora



Goribargoitti baserrixa (Goribar auzua). Argk.: Roberto Altuna

Aurreko bi artikuluetan aittatu dogun moduan, Manuel Umerez Agirre Goribargoittiko semiak bi lan mardul eskribiu zittuen Oñatiko euskeraz XIX. mendiaren hasieran, *Osaba baten...* izenekua 1805ian, eta haren birki laguna *Errectore Jaun baten...* deritzana be, danon ustez, urte horren inguruan. Gero bixak bere jaiotetxian geratu ziran hango senidien eskuetan.

1818xan, egillia hilddakuan, bere illoba abadia Juan Jose Umerez Kortazarrek (1775-1835), jasoko zittuen herentziaz eta Goribargoittin euki zittuen hil artian.

Aittatutako Juan Jose hil zanian, berriz, lanok bere illoba Pedro Arrazola Umerez (1804-1840) abadiaren eskuetan jarri, eta, hartara, eskuizkribuok bere jaiotetxera –Arrazola Azpikora– aillegauko ziran; izan be, hirugarren abade honen ama Goribargoittitik Arrazola Azpikora ezkontzaz etorrixa zan.



Arrazola Azpikua (Olabarrieta auzua). Argk.: Roberto Altuna

Gizaldi oso batian ezkutauta egon ondoren, 1930ian Jose Adrian Lizarralde historialari frantziskotarrak berriz topau zittuen itzittako lekuan –Olabarrieta auzoko Arrazola Azpikuan– eta Leonardo Zabaleta abade oñatiarraren eskuetan jarri.

1961ian, Koldo Mitxelenak bere 'Fonética Histórica Vasca' liburu ospetsuaren bibliografian *Errectore Jaun baten* eskuizkribua aittaketan dau, lan mardul hori egitteko gutxi-asko ebalu ebale señaie.

1974 aldera, Oñatiko Liburutegiko Batzordiak eskuizkribuak berreskuratu eta argittara emuteko asmua erakutsi eben. 1975ian, batzorde horrek eskatuta eskuizkribuak Arrazola Azpikotik etaratia konsegiu zan, eta orduko alkate Reyes Korkostegiren laguntasunaz lanen kopixak egin ziran. Horretarako, Mondragueko Lankide Aurrezki Kutxaraiño (gaur eguneko Laboral Kutxa) jo bihar izan euen, sasue hartan ixixa iñun ez eguelako fotokopixadorarik.

1980ko hamarkadan, Jerardo Elortzaren arduraiean *Osaba baten...* eskuizkribuaren transkripziñua egin zan.

2021ian, udalaren laguntzaz eskuizkribuak digitalizau eta udalaren webgunian* ifiñi ziran ikerlari* eta herriitarren eskura egon zittezen. Horren ondoren, jatorrizko bi liburuak berriz Olabarrieta auzoko Arrazola Azpiko baserrira itzuli ziran.



Oxel Uribe-Etxebarria, Anik Zubizarreta, Jose Ramon Arrazola, Iñaki Olalde, Jerardo Elortza eta Ramon Martin, 2021eko martixaren 24an, Manuel Umerezen liburuaren digitalizaziñuaren aurkezpen egunian. Onduan jatorrizko *Osaba baten...* eskuizkribua atrillian. Argk: Iñigo Arregi

- (*) 1. https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak/osaba-instruccinuac_1-alea.pdf
2. https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak/errectore-instruccinuac_2-alea.pdf

Oharra: Interneterako konexiño ona edo banda zabala izan ezian, lanok dakoin pisu haundixa dala-eta, ezin dira ikusi.

(*) 2019xan hasitta, Oxel Uribe-Etxebarria EHUko unibersidadian lanian dabillen Eskoriatzako irakasle eta ikerlari gaztiak Manuel Umerezen eskuizkribuen tesisa egitten dihardu, eta 2026xan akabaitteko asmotan dabil ondoren argitaraketako. Suerterik onena opa xaugu langintza horretan!

Itturria: Jerardo Elortzaren zenbait artikulua, Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

>> LITERATURA TXATALAK (XV)

Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818). Bizitza eta obria (IV)

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñua: Jabier Erostarbe

SEME-ALABAAN HEZIKETIAZ

Ikusi degigun seme-alabaan heziketiaz Manuel Umerezek eskribiutako zenbait pasarte, bere idazkeriaren eta pentsakeriaren erakusgarri:

Necazari onac Arbolia, erneetan dan instantetic, darua bezaubagaz, guero bere demporan frutu onac emun deguion, quentzen deutsal, dacarren, oquertasun eta bastago vizioso guztia, Arbolia bigun eta gaztechua dan bitartian; bein Arbolia andi eguin eta gogortu ezquero, leenago ausico lizateque, zuzendu baño: orobat bada zubec Guraso onac leguez emun biarco deustezube zeuben Umiari Jaungoicoaren vorondatiagaz conformeco bezu onac chiquitanic, bezubac artzeco capazac dirian bitartian, gueroco Juicioaren cuidadura guztiz itzi bagaric puntu delicadu au, Umiacaz Ume eguiten zariaila, eta Andiacaz Andi amorioagaz eta Prudenciagaz. (Osaba: 140)

Bezau gura badituzube zeuben Umiac zeuben obediencian eta Castidade guztizcuagaz, San Pablo Apostolubac diñuan moduban, apartau biarco dituzube Gaztiac alcarregaz eguin oi dituben jan, edan, eta francacheletatic, eta ez deustezube permitidu biar aficionau ditezen Ardao, Aguardiente, Mistela, edo beste onelaco Licoretara; (Osaba: 142)

Bestetik, hona hemen Belen Altunaren komentariak beste gai honen gainean: *"Umerezen arabera 'iracurten icasi ezquero, beriala erretirau biarco dituzube Echera ala Semiace nola Alabac, eta ifini biarco dituzube bertatic Necazaritzaco Oficioan' (Osaba: 331). Maiorazkoari, agian, komeniko litzaioke idazten ere ikastea, baina, beste aldetik, buruhauste gutxiago izango du ikasten ez badu!" (izan ere, herriko Kontzejuan karguren bat izatea tokatu lekiok, eta hori baserrian lana egin behar duen batentzat eragozpena izan liteke).*

Baita ere Echeraco izango dan Semiace, escribitan zerbait icastia, alde batetic provechu dau, Echecho artu emunaren asientuba eruateco; baña ez jaquinagaz escribitan librauco lizateque Errico cargu pisubetatic, eta oneic Necazari ignorante bateri dacarden Buruco miñ eta Calte modu ascotatic; zeuc pensauco dozu, nire Illoba, zeñ onduen dan, zeure Semiaren eta Echiaren provechubari batere pasino bagaric beguiraturic. (Osaba: 332)

Eta honela segitzen dau: *"Umerezen arabera, maiorazkoa nahiz beste seme-alabak baserri giroan atxiki behar dira beti, kalean dauden arrisku beldurgarrietatik urrun":*

Ez eguizube permitidu, zuben Umiac urten daguien Cale zaliac, zeuroc onetan ere emuten deustezubela egemplu ona: Caleco Echetan Guraso eta Ume aimbat entradaric guchien euqui biar dozube, batez ere zubenetic Calera daguan urtasunagaz. Ez dozube ere bialdu biarco onelaco Semia edo Semien faltan Alabia iñolaco pretestuz Erritic edo Echetic campora Erderaz edo Guizarteco barri icastera, edo (zubec esaten dozuben leguez) Habilidadiac artzera; au izan oi da zubelacuen artian Diabrubaren engaño manifesto bat (Osaba: 323)

Umerezendako euskeriari eustia bihar-biharrezkua da dotriña ondo ikasi eta entenditteko:

Umiac, batez ere muticuac, icasi oi daube erderaz escolan beren Doctrina santuba; eta euscaldunac dirian leguez, ez daube comprenditan ezercho; icasten dauben pusquia daquie loruen modura; eta onela guertaquetan da onerian umiacaz amabi edo amalau urte cumplitia salvaitaco premia dan gara Doctrinaric ez daquiela. Ez, ez, ez dozube zubec izan biar aiñ ardurabagac zeuroen umiacaz puntu grave onetan. (Osaba, 166. or.)

Hiztegixa: *Bezu:* hábito, costumbre. *Bezau:* bezatu. **1.** ohitu (avezarse, acostumbrarse). **2.** hezi (domesticar, domar, educar). *Bezau, -a:* arba, zurrakaitza (tutor). *Orobat:* era berian, beste hainbeste.

onerian umiacaz: honelako umeekin edo hauen moduko umeekin. Umerezek izenlagun honeik ebaltzen dittu: *onerian 'honelako'; orrerian 'horrelako' eta arerian 'halako' esanguriarekin.* Eta deklinau egiten dittu: *oneriare-nac, onerientzat...* *Salvaitaco premia dan gara:* salbaitteko premia dan beste/bezainbeste edo adina [aiña].

Itturrixa: Belen Altunaren 'Euscaldun fededun' liburua, Jerardo Elortza eta Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

>> LITERATURA TXATALAK (XVI)

Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818). Bizitza eta obría (eta V)

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñua: Jabier Erostarbe

BESTE SUPERSTIZIÑO ZIRRINDARAK

Ikusi degigun superstiziñuaren gaixaz Manuel Umerezek eskributako zenbait pasarte, bere idazkeriaren eta pentsakeriaren erakusgarri moduan:

Belen Altunak azalpen hau emuten dosku puntu honen gaiñian: "Superstizio edo sorginkeriako" bekatua osatzen duten jardunen zerrendatxo bat eskaintzen digu Umerezek. Horien artean, San Juan gauaren zikloarekin erlazonatutako batzuk, eta begizkoaren kontrako erremedioak; orain ere sorginez gutxiago hitz egiteko erregutzen du, eta gehiago bekatuan dauden arimez:

"eta pecatu au da superstizinocua edo sorguinderiacua deritzona; oneitatic batzubec izentauco ditut; zergaitic sarritan guertatu oi dirian batere escrupulu bagaric: Onelacuac dira ollarra besartian daucala eta gaberdian batec iru vuelta Echiari bere inguru guztitic emutia; San Juan gau leneco gaberdian soroco cardubac eta bedarrac ebatia; santu glorioso onen egunaren goician eta ez beste demporatan auntzai eta beste ganaubai igueri eraguitia; beguiz eguitia ume edo ganauren bateri, eta sospecha dirian personiari escubac garbitu eraguin eta aren ura edan eraguitia ume edo ganau gaiñoari; icatzac umiai colcuan sartzeia; batec gaitz luceren bat eta izen bagacua daucanian, bere oia eta almuadia erregistratitua gaitzquinaren billa, eta an beguitandu eta figuraitan iaten gauzac apartau eta vidacurtzetan erretia; Laumaravidicuac eta Zortzimaravidicuac doblauric edo oquerturic botatia Animen Zepotilluetara edo San Antonioaren aurrian ifintia; orobat defuntuben gañian eta odei aserretaco demporetan Conjuruen eta Conjuradorien gañian zabaldu oi dira mila siniste guezurrezco; eta beste edozein gauzatan corritan daube Atso ipuiñ asco christandadian sufridu ezin leizquianac. Instante oro entzun oi da: "Urlia edo Berendia Sorguiña da; Aquelarren onelaco eta alaco gauza eguiten dau"; itzi deiogun baquian Aitz puntaco Gaizta zuloari, jaquinic eguiazco Gaizta zuloac diriala vizioz eta pecatuz beteric dagozen biotz eta anima madaricatubac."
(Osaba: 164-165) (82)



Beste pasarte honetan be *Gaiztazulo –Oñati aldera begira daguen Buetraitz eta Andraitzen arteko kobazulua– aittaketan dau, han ei dagozen diabruen kontuai kasu ez egitteko esanaz:

"eta nora guaza odei demporaco guizur sinisqueta oneicaz, bardin odei aserriac ecusi oi dirian alderen batetic aurquiquetan bada, iñorc ondarric ez dequion leze andiren bat, nire gazte demporan, Oñatin estudioetan nebillela, entzun oi neben leguez Gaiztazuluaren izena daucan leze bategatic? Entzuten neben, bada, leze onetan diabrubac vizi diriala, sartu eta urten ibiltan diriala batez ere odei aserria daguanian, urlia arzainegaz eta berendiagaz au guertatu zana eta bestia, eta beste onelaco millabat atso-ipuiñ ume artian ere dempora iragogarri esaten christaun batec lotsatu biar leuquiana."
(Errectore baten....: 98)

Hiztegixa: izentau: izendatu (nombrar); *beguitandu*: hala dela pentsatu, baina gero ez izan, hau da, susmo bat izatea; *Laumaravidicuac*: lau maraiko txanponak (moneda de cuatro maravedies); *Zortzimaravidicuac*: zortzi maraiko txanponak (moneda de ocho maravedies); *Animen Zepotilluetara*: hildakoen aldeko limosna-kutxetara (a los cepillos de animas o difuntos); *orobat*: asimismo, también; *Instante oro*: une edo memento guztietan; *Urlia edo Berendia*: fulano o mengano; *guizur sinisqueta*: sineste faltsua (falsas creencias); *bardin*: baldin; *iñorc ondarric ez dequion leze andiren bat*: inork hondorik edo amaierarik topatu ez diezaiokeen leize handiren bat; beraz, leize sakona dela adierazten du; *leze*: leize, kobazulo; *urlia arzainegaz eta berendiagaz*: holako eta halako artzainegaz (con tal o cual pastor, con fulano y zutano); *dempora iragogarri*: denbora-pasagarri (pasatiempo); *christaun batec lotsatu biar leuquiana*: pertsona batek lotsatu behar lukeena.

*Gaiztazulori aittamena egitten xauen testu osagarri hau topau eta herriko euskeran ifiñi dogu Imanol Biainen eta Martin Jauregialtzoren '*Oñatiko mitologia*' lan argitaratu bagian:

"Gorgomendiren gaiñian dago Gaiztozulo. Hobeto esateko, Buetraitzen onduan. Hauxe da Gorgomendiko Señoriaren bizilekua. Buztana luze ebalá etorten ei zan Anbototik Gorgomendira. Ha Gorgomendin eguenian, negua txarragua izaten zan. Gu gazte giñala, Oñatitik abadiak faten ziran zulo hori bedeinkaketara. Orduan kuttunak egiten ziran San Juan egunian bedeinkatutako bedarrakin. Errudia ta aapixua ziran etsaia botateko inddarra eukain bedarrak".

(Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna)

Oharra: Umerezek 'Gaiztazulo' dakar eta Grazianok, berriz, 'Gaiztozulo' darabillela ikusten dogu; beraz, bixak ebaltan dira. Dana dala, Oñatin 'maldad' edo 'malicia' esateko '**gaiztakerixia**' esaten dogu, euskera batuko 'gaiztakeria' moduan.

Itturrixa: Belen Altunaren 'Euskaldun fededun' liburua, Jerardo Elortza eta Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.